

1. BIKOTEA: Ane Badiola eta Olatz Mitxelena (Oiartzun)
Musika laguntza: Aitziber Zabalegi (gitarran), Garazi Ansa (akordeoian),
Izar Azpiroz (zeharkako xirulan) eta Maialen Irastorza (pianoan).
Kantua:

MEREZI OTE?

Hitzak: C. Pavese / J. Sarrionandia

Musika: Gontzal Mendibil

Moldaketak: Alberto Rodriguez

Etzetik ihes egiteko kalea zeharkatzea
mutiko batek bakarrik egin lezake,
baina kaleak egunero ibiltzen dituen
gizon hori, jadanik ez da mutiko bat
eta ez doa etzetik ihes.

Badira udan eguzkia
sartzen ari diren plazak
hutsik geratzen direneko arratsalde batzuk,
eta landare alferrekoen etorbideak
heldu berri den gizon hori
gelditu egin da.

Merezi ote bakarrik egoteak? geroan ere bakarrik egoteko?

Kalerik kale bakarrik
plazak eta kaleak hutsik
gelditzeko esan behar zaio andrearen bati
eta norberarekin bizi dadila eskatu behar zaio
zeure buruarekin bestela mintzatuko zara.

Merezi ote bakarrik egoteak? geroan ere bakarrik egoteko?

Horregatik batzutan gaueko mozkortia
berriketan hasi ohi da proiektuak adierazten
kalerik kale ibiliz ere etxea jadanik
andere horrenean legoke eta mereziko luke.

Merezi ote bakarrik egoteak? geroan ere bakarrik egoteko?